

## 8. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

### Baliabide FISIKOAK

#### 1) Lokalak

##### 1.1 Denda fisikoak

Gure produktuak fisikoki saltzeko **denda fisiko** bat izango dugu. Lokalak **handia** izan beharko du, **erakusketa** bezalako bat izango delako, gure bezeroek **gertutik ikus** ditzaten gure produktuen **xehetasun** guztiak. Argitasuna ere garrantzitsua izango da.

##### 1.2 Biltegia

Fabrikatik datozen produktuak gordetzeko lokal **pabiloi handi bat** behar izango dugu. Pabiloi horretan **apalategi altuak** izan beharko ditugu, espazioa ahalik eta hoberen aprobetxatzeko.

#### 2) Ibilgailuak

##### 2.1 Kamioiak / Furgonetak

Gure produktuak **fabrikatik denda fisikoetara garraiatzeko** kamioiak edo furgonetak behar izango ditugu. Garraio-bide horiek **espaziotsoak** izango beharko dira.

#### 3) Materialak

Zaborrontziak fabrikatzeko beharrezkoak dira materialak; Gure kasuan, **plastiko birziklatua** erabiliko dugu eta detektagailuak erabiliko ditugu, baina horietaz subkontratutako atzerriko enpresa arduratuko da, baita detektagailuez ere.

#### 5) Altzariak

Biltegiko bulegoak zein denda fisikoko espazioak betetzeko eta antolatzeko altzariak erabiliko ditugu:

- Mahaiak
- Aulkiak
- Apalak
- Bulegoko materialak (Arkatzak, folioak, boliak, grapagailuak, inprimagailua...)

#### 6) Ekipo informatikoak

Gure **enpresa** guztiz **sistematizatuta** egongo da, eta horretarako beharrezkoa da ekipo teknologiko on bat. Ekipo informatikoen barruan honakoak behar ditugu:

- Ordenagailuak - tabletak - mugikorak - inprimagailuak - internet sarea

## Baliabide EKONOMIKOAK

Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko, **finantzaketa eskuratu** beharko dugu. Horretarako:

- 1) Finantzaketa eskatuko dugu **banketxean**
- 2) Enpresako **bazkide bakoitzak 10.000 €-ko kapital soziala** jarriko du ⇒ Orotara, 110.000 € + Laboral Kutxako mailegua ↓

Tu cuota es de	1.159,97 €
El tipo de interés es del	6,00%
El TAE es del	6,61 %
La comisión de apertura es del 1%	600 €
El importe total es	70.198,06 €

## Baliabide INTELEKTUALAK

### PATENTEA

**Gure ideia inork kopiatu ez dezan**, gure produktua patentatzea beharrezkoa da. Beraz, patentea eskuratuko dugu “*Oficina Española de Patentes y Marcas*”-en.

## GIZA baliabideak

Giza baliabideak edo **langileak** ere ezinbestekoak dira. Enpresan, **arloaren arabera, langile ezberdinak** egongo dira:

### 1) Merkaturatze saila

Merkaturatze sailean marketinarekin lotutako ikasketak dituzten langileak egongo dira. Euren **zeregin nagusia** gure **produktua kontsumitzaileengana helaraztea** da, eta, horretarako, **merkatu azterketa** egin beharko dute, eta, ondoren, **marketin kanpainak** abian jarri beharko dituzte.

### 2) Inbertsio- eta finantzaketa-saila

Arlo honek **inbertsio-politikaren** ardura du, eta, beraz, ekonomialariek osatuko dute. Gainerako sailek finantzaketa behar izatekotan, sail honek onartu beharko du.